



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 16a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte-langileak oinarritzko osasun barrutietan egoteko baldintzak. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ludopatia sar dezan Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Sakanako eragile sozioekonomikoek egingandako lana eta ahalegina, “Sakana 2020” Plan Estrategikoa emaitza gisa ekarri duena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekursoak, erosahaltenaren galera dela-eta abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan har CRANA fundazioaren behin betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiriarren bi izen ofizialak ager daitezen. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu Espainiako Gobernuak hartutako neurria, ikastetxeetako ikasleen artean ETAREN terrorismoaren biktimen testigantza ezagutarazteari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak urgentziakotzat jotzen baitu premia duten pertsona guztiei ziurtatzea C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Ezkaban fusilatutako hamaika errepublikanoei eskainitako monolitoaren aurkako atentatua. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Charlie Hebdo” astekariaren aurkako atentatu kriminalaren jomuga izan diren Frantziako herritarrekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapena Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzea dela-eta. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuei buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea. Barne-funtzionamendurako arauak (13. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen (14. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua aldatzea (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte-langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte-langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zuzenean egin dezan

lan profesionalekin, eta prozesu bat abian jar dezan, plantillen banaketa, lan-zamak eta antolamenduari buruzko gainerako alderdiak adostu eta zehazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizarte langileen garrantzia, are gehiago egungo egoera sozioekonomikoan, eragin zuzena baitu pertsonen bizi kalitatean, egoera sozialean eta osasunean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun laguntza publiko integrala berma diezaien Nafarroako herritar guztiei, ekitatea, unibertsaltasuna eta irisgarritasuna oinarri dituenak.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osa-

sun arlokoak, eta ziurta dezan erakunde publikoen ekimena osatzen eraginkortasuna eta efizientzia erakutsi duten elkarte eta komunitate-zentroyen iraungarritasun ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza zehatzak abian jar ditzan Nafarroan arriskuko sexu-praktikekin lotuta gertatzen ari diren GIBaren kutsatze kasuen kopuru handia murrizteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sendotu eta finantza daitezzen drogen arloko kalteak murrizteko programa, asko lagundu baitute GIB/hiesaren izurriaren kontrolaren alorrean”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ludopatiasar dezan Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ludopatiasar dezan Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ludopatiasar dezan Drogamenpekotasunen aurkako Foru Planean, substantziarik gabeko adizioen artean, eta bereziki gazteen artean gora egiten ari den arazo horri buruzko informazio- eta kontzientziazio-kanpaina berariazkoak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du koordinazio-tresna formal eta egonkorrak ezar ditzan elkarte horren eta Osasun Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean, gazteen ludopatiaren prebentziorako berariazko plan bat egiteko, non honakoak bilduko baitira: familientzako, osasun-langileentzako eta irakasleentzako prestakuntza, eta gai hori ikaste-txeetan lantzeko hezkuntza materialak sortzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide jar ditzan ludopatiasar prebenitzera eta artatzera bideratutako ekimenetarako, ondorio pertsonal, familiar eta sozial larriak dauzkan gaitz bat baita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du har ditzakeen araugintza-neurriak azter ditzan, kirol apustuen establezi-

menduetan kontrol-neurriak ezartze aldera, adingabeek haietara sartzerik izan ez dezaten”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Sakanako eragile sozioekonomikoek egindako lana eta ahalegina, “Sakana 2020” Plan Estrategikoa emaitza gisa ekarri duena.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Sakanako eragile sozioekonomikoek egindako lana eta ahalegina, “Sakana 2020” Plan Estrategikoa emaitza gisa ekarri duena”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Sakanako eragile sozioekonomikoen lana eta ahalegina aitortzen ditu, zeinen emaitza izan baita “Sakana 2020 Plan Estrategikoa”

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan estrategikoan jasotako ekintzak azter ditzan, horiek sustapen ekonomikorako politika orokorretan sar ditzan eta horiek praktikan jartzeko parte aktiboa izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordioak bila ditzan “Sakana 2020 Plan Estrategikoa” izenekoaren sustatzaileekin, planeko ekintzen abiarazpena gauzatzeak eskatzen dituen egitura-, giza eta finantza-baliabideak paratzeko, eta horretan aktiboki lagun dezan.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, erosahalmenaren galera dela-eta abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak.

LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAzioKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, erosahalmenaren galera dela-eta abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean erosahalmenaren galera dela-eta osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak”.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan har CRANA fundazioaren behin betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik.

LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAzioKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan har CRANA fundazioaren behin betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inongo erabakirik ez dezan har

CRANA Fundazioaren behin betiko deuseztatzea dakarrenik, 2015eko foru hauteskundeetatik sortzen den Gobernuak askatasuna izan dezan erabaki hori hartzeko eta Gobernu horrexek erabaki dezan Nafarroako etorkizunik eduki ote dezakeen jasangarritasunaren arloko politikarik gabe eta politika horretarako behar diren baliabideak jarri gabe; izan ere, baliabide horiexen artean CRANA funtsezko zutabe litzatekeela uste dugu”.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiriaren bi izen ofizialak ager daitezen.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiriaren bi izen ofizialak ager daitezen.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiri sarreretako kartelak alda ditzan, Iruñeko bi izen ofizialak aipatutako karteletan ager daitezen.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu Espainiako Gobernuak hartutako neurria, ikaste-txeetako ikasleen artean ETaren terrorismoaren biktimen testigantza ezagutarazteari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Espainiako Gobernuak hartutako neurria, ikaste-txeetako ikasleen artean ETaren terrorismoaren biktimen testigantza eta gertakariei buruz haiek

egindako kontakizuna ezagutarazteari buruzkoa, haien oroitzatpena bizirik mantentzeko xedez eta gazteenek bertatik bertara izan dezaten gure historia hurbilaren eta Nafarroan eragindako oinazearen berri.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak urgentziazkotzat jotzen baitu premia duten pertsona guztiei ziurtatzea C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak urgentziazkotzat eta zeharo beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak protokolo bat zehaztu dezan, inolako luzamendurik gabe eta Foru Komunitateak osasun arloan dituen eskumenak aitortuz eta garatuz, C hepatitisaren tratamendurako eragin zuzeneko antibiral berriak erabiltzeari buruzkoa, halako moduan non tratamendu hori bermatuko baitzaie horren premia duten pertsona guztiei –sendagilearen aginduz eta, horrenbestez, irizpide medikoei jarraikiz–, medikamentu horien kostua medikamentuak lortzeko eragozpen izan gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio –zehazki, Osasun Departamentuari– errefusa dezan “leheneste-estrategia terapeutikoa” izeneko (C birusarengatiko hepatitis kronikoaren tratamendurako eragin

zuzeneko antibiralak erabiltzekoa), bere egungo formatuan, eta berehala gara dezan beste estrategia berri bat, kontuan hartuko dituen aditu kliniko-iritziak eta elkarte ezberdinetan ordezkaturako gaixoena, halako moduan non gaixotasun hepatiko aurreratua (C hepatitis) daukaten pertsonak berehala eskuratu ahal izanen baitituzte farmako berriak; kategoria horretan sartuko dira zirrosi hepatikoa (konpentsatua nahiz deskonpentsatua) daukaten gaixoak, gibel-transplante baterako itxarote-zerrendan dauden gaixoak, transplantatuak, eta aurretiazko terapiari erantzuten ez dieten gaixoak.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu C hepatitis daukaten gaixoen elkarten eta GIB-giza immunoeskasiaren birusarekin infektatutako edo koinfektatutako pertsonekin lan egiten duten GKE-en errieindikazioak, eta bere elkartasuna adierazten die ukitutako pertsona guztiei”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Ezkaban fusilatutako hamaika errepublikanoei eskaintako monolitoaren aurkako atentatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespenik erabatekoena adierazten du, diktadura frankistaren aurrean demokrazia eta Nafarroako herriaren askatasuna defendatzeagatik eraildako pertsona horien memoriaren aurkako atentatu honen aurrean.

Nafarroako Parlamentuak exijitzen du beharrezkoak diren lege-ekimenak har daitezen, ekin-

tza horren arduradunek ordain dezaten egindako laidoa.

Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die leku horretan fusilatutako pertsonen familiei eta Santakarako, Murillo el Frutoko eta Berriozarko udalei, laidoa haien kontrakoa ere izan baita”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “Charlie Hebdo” astekariaren aurkako atentatu kriminalaren jomuga izan diren Frantziako herritarrekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako gizartearen atsekabea jasoz, bere anaitasunezko elkartasuna adierazten die Frantziako herritarrei, zeinak “Charlie Hebdo” astekari satirikoaren aurkako atentatu kriminalaren azken jomuga izan baitira. Urteetan fanatismoaren ondorio kriminalak pairatu dituelako, Nafarroak modu berezian sentitzen du bizikidetasunaren eta adierazpen askatasunaren aurka Parisen egindako eraso.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du, Nafarroako gizartearen ordezkaria den aldetik, indarkeria eta intolerantzia mota ororen aurka dagoela, bai eta Europa elkartasun-, errespetu- eta ezberdinen arteko lankidetzagune bihurtu nahi duten herritar-balioekiko bere konpromisoa ere.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspeni buruzkoa, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapena Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzea dela-eta.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspeni buruzkoa, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapena Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzea dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeko hama-

bigarren xedapenean aurreikusita dago 2012ko abendu aparteko soldataren zati bat berreskuratzea, sektore publikoko langileek ez baitzuten hura jaso, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren aplikazioaren ondorioz.

Xedapen horrek honakoa aurreikusten du: "administrazio publiko bakoitzak, bere esparruan, kopuru batzuen ordainketa onetsi ahalko du, aparteko soldataren etetearen ondorioz egiazki jaso ez diren zenbatekoak berreskuratzearen konzeptuan". Berreskurapen horren muga gisa ezartzen da aparteko lansari horren lehenengo 44 egunei dagokien zati proportzionala, edo jaso gabeko zenbatekoaren ehuneko 24,04, beren ordainsari-araubidean aparteko soldatak kobratzea jasota ez duten langileen kasuan.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aipatutako 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatu zitzaenez eta 2012ko abendu aparteko soldata jaso ez zuten, kontseilariak honako galderari erantzutea nahi dugu:

Zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapena Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzeari dagokionez?

Iruñean, 2014ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuei buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 2an, Alde Zaharreko osasun etxeak ezin izan zuen pediatria-eskaririk artatu, ez zegoelako horretarako profesionalik.

Zentrotik bertatik gomendatu zieten gurasoei larrialdi zerbitzuetara joan zitezen, beste masifikazio-iturri bilakatuz hartara bere funtzionamendua

definizioz beste modu batera taxututa daukan zerbitzu batentzat.

Halaber, zentroak atzeratu eta berrantolatu egin behar izan zituen egun horretarako aurreikusita zeuzkan hitzordu arrunt guztiak, eta beste egun baterako utzi.

Zoritxarrez, ez da hori gertatzen den lehen aldia, 2014an zehar beste horrenbeste gertatu delako zenbait alditan.

Foru parlamentari honek honako galdera hau egin nahi dio Nafarroako Gobernuari:

- Zer dela-eta gertatu da ustekabeko hori Alde Zaharreko osasun etxeko Pediatria Zerbitzuan?

- Osasun Departamentua Pediatria Zerbitzuen funtzionamendu normalizatu bat ziurtatzeko moduan al dago?

- Departamentuak zer prozedura darabil osasun etxeetan pediatriako langileen bajak eta ordezkapenak betetzeko? •

- Departamentuak ba al dauka ordezeko pediatren zerrendarik? •

- Beste zer osasun etxetan gertatu da pediatriako kasuak beste zentro batzuetara desbideratu behar izatea langileak ordeztu ezin izateagatik?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei idatziz erantzuteko eskatzen du:

Aurreko informazio-eskaera batean Etxebizitza Departamentuak adierazi zidanez, alokairuko 270 etxebizitza pribatu babestu zeuden hutsik 2014ko urrian. Halaber, Ekonomia Departamentuak adierazi zigun Nafarroako Gobernuaren jabetzako 436 etxebizitzetatik 172 zeudela hutsik.

Zeri zor zaio hori, baldin eta etxebizitzetarako zentsu bakarreko eskaria handia bada? Aurreikusita al dauka jarduketarik etxe bizitza horiek alokairu babestuan eskaintzeko?

27/12014 Foru Legea onetsi zenean, abenduaren 24koa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babegarri aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzetarako Erregistro Orokorra sor-

tzen duena, zuzenketa bat onartu zen, zeinaren 6. idatz-zatiak honako hau ezartzen duen: "Ezin izanen da inolako abalik eskatu alokairu publikoko errentamendu-kontratua egiteko." Lege hori NAOn argitaratu ostean, kexa bat jaso dugu, zeinaren arabera diru-laguntza jasotzeko eskubideko alokairu babestua kudeatzen duen enpresa pribatu batek abala exijitu baitu kontratua sinatu ahal izateko.

Kontseilariak ba al du horren berri? Zer neurri hartuko ditu legearen manu hori betearazteko?

Halaber, lege horretan bi xedapen gehigarri onetsi ziren.

«Hamalagarren xedapen gehigarria. Hiri-kontribuzioaren ordainketa.

Babestutako etxebizitzetarako errentamendu-kontratuetan, hiri-kontribuzioa, betiere, errentatzaileak ordainduko du, eta ezin izanen da haren ordainketa errentariaren kargu utz».

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuaren esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzetarako eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzetarako errentamendu-kontratuak esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, diru-laguntza eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak, non eta, lan-egoeratik edo egoera ekonomikoagatik, beren diru-sarrerak ez diren gutxitu urte horretan; hala bada, berritzeko uneko datu errealei eginen zaie kasu, eta diru-laguntza eguneratzea eskatzen ahalko da edozein unetan, egoera ekonomiko hori edo lan-egoera hori aldatu denean ».

Horiek horrela, hauexekin jakin nahi dugu: departamentuak nola betearaziko ditu xedapen horiek? Zein epetan?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen ondoko lantaldearen barne-funtzionamendurako arauak: "Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea," zeinak lantaldeak berak onetsi baitzituen 2015eko urtarrilaren 13an eginitako bilkuran. Hona testua:

"Lehena. Lantaldearen xedea da aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea, eta horri buruz dagoen txostena egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkezten diren boto partikularrekin batera –balduin eta halakorik aurkezten bada–, eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena. Horra lantaldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

José Antonio Rapún León jauna (UPN)
Ordezkoa: Francisco Javier Lorente Pérez jauna
M^a Carmen Ochoa Canela andrea (SN).
Ordezkoa: Samuel Caro Sádaba jauna
Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu)
Ordezkoa: Miren Julia Aranoa Astigarraga andrea
Nekane Pérez Irazabal andrea (Aralar-NaBai)
Ordezkoa: Asun Fernandez. de Garaialde andrea
Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)
Ordezkoa: Ana Beltrán Villalba andrea

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)
Ordezkoa: José Miguel Nuin Moreno jauna
Patxi Leuza García jauna (Atxiki gabekoa)
Ordezkoa: Manu Ayerdi Olaizola jauna

Hirugarrena. Lantaldeak Bikendi Barea Aiestaran jauna hautatu du lehendakari, zeina, kasu bada, lantaldeko kiderik zaharrenak ordezkatu ahaliko baitu. Lantaldeko idazkaria izanen da lan-taldeari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

Laugarrena. Lantaldeak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, kide-eledun bakoitzak, bere parlamentu-taldea zenbat foru parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu lantaldean. Atxiki gabeko foru parlamentariak boto bat edukiko du.

Bosgarrena. Lantaldeak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du gaian aditu diren beste batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrena. Lantaldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena. Lantaldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2015eko martxoaren 31n bukatu beharko du.

Zortzigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea"

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion ahalmena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi egin du 2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen. Foru lege dekretua 2014ko abenduaren 31ko 254. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta, Nafarroako Parlamentuak baliozkotu dezan, igorri du Nafarroako Gobernuak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2015eko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran eginen dela Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen abenduaren 29ko 2/2014 Foru Lege Dekretua baliozkotzeari edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipaturiko foru lege dekretua.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak presako zenbait neurri onetsi zituen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan. Aipatu neurriak, funtsean, ekonomiaren eta aurrekontuen egungo egoeran oinarriturik hartu ziren, eta horietako gehien indarraldiari dagokionez, erabaki zen 2012. urtera mugatu zela, eta gerora erabakiko zela hurrengo urteetan luzatuko zen ala ez.

Abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak 2013. urtera luzatu zituen ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitako zenbait neurri. Modu berean, abenduaren 30eko 1/2013 Foru Lege Dekretuaren bidez, neurri berak 2014. urtera luzatu ziren. Neurri horien indarraldia 2014ra luzatzea eragin zuten inguruabarrak aldatu ez direnez, beharrezkoa da 2015. urtera ere luzatzea, eta horretarako, beharrezkoa da lege-mailako arau bat garatzea.

Alde horretatik, foru lege-dekretu honen bidez luzatu egiten da 2013an eta 2014an indarrean egon diren neurri beren indarraldia, hots, Parlamentuaren gehiengoaren borondateari jarraikiz onetsitako abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legean ezarritakoa. Hona, neurri horiek:

- Langileek zerbitzu aktiboan segitzeko luzapena etetea.
- Zerbitzuagatiko dietak kentzea.

–Osasun Laguntzaren Zerbitzuko “Erabilera berezia” delako modalitateko tarifak erabiltzeko mugak.

–Nafarroako Gobernuak kideei eta gainerako goi karguei dagozkien neurriak.

Bestalde, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 25.2 artikulua ezartzen du pentsioen zenbatekoa urtero eguneratuko dela, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege bakoitzak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezartzen duen ehunekoaren arabera. Alde horretatik, aintzat hartu beharra dago ez dagoela Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik 2015erako, izan ere, Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, atzera bota du eguneraketa hori jasotzen zuen Nafarroako Gobernuaren proiektua.

Hori horrela izanik, bidezkoa da lege mailako arau bat onestea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako klase pasiboen pentsioen 2015erako eguneraketa jasotzeko. Aurreko urteetan bezala, erreferentziatzen hartuko da pentsio publikoek urte horretan jasaten duten igoera, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak horretarako xedatzen duenarekin bat.

Foru lege-dekretu honetan jasotako eguneraketaren arabera, zenbait inguruabarrek tratamendu berezia behar dute, esate baterako, alargun-eta umezurtz-pentsio minimoek; izan ere, indarreko araudiak lanbide arteko gutxieneko soldaterekin lotzen ditu. Era berean, eta pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatzeko, zehaztu da pentsioak ez direla eguneratuko baldin eta pentsio horiek berek bakarrik edo onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako oro har urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua hauxe ezartzen du 1. zenbakian:

“1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanzen ditu, foru lege-dekretuaren forma hartuko dutenak. Ezin izanzen dira foru lege-dekretuaren xede izan honakoak: Foru Komunitateko erakundeen eta nafarren eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege organiko honetan arautuak daudenena; lege organiko honen erreforma, eta lege hau garatzeko emandako foru legeena, legean bertan espresuki

aipatzen direnena, hain zuzen; hauteskunde-arau-bidea; eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.”

Gorago deskribatutako aparteko eta premiazko inguruabarrak direla-eta –bereziki 2015eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik ez izatea–, beharrezkoa da foru lege-dekretu bat onestea, izan ere aipatu lege organikoak ezartzen duen bezala, langileen arloko presako neurriek eta pentsioen eguneraketak kasuan kasuko urtearen urtarrilaren 1ean hartu behar dute indarra.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2014ko abenduaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2015. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5., 6. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanzen dute.

2. Aurreko atalean xedatutakoa galarazi gabe, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek lanbide arteko gutxieneko soldatari jarraituko diote, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Pentsio publikoen arloko indarreko araudia aplikatzeko, eguneraketa ez da aplikatuko baldin eta aitortutako edo etorkizunean aitortuko diren pentsioek, berek bakarrik nahiz onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2014ko urtarrilaren 20an hartutako erabaki baten bidez, Eledunen Batzarrarekin bat, ebatzi zuen kasuko kontsultak egitea Gizarte Segurantzaren, ikuste aldera ea zer aukera dagoen erakunde horrekin akordio bat lortzeko, zertarako eta foru parlamentariak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrari atxiki ahal izan dakizkion, gainontzeko langileak bezalaxe. Bilkura berean orobat erabaki zen ezen, modu horretako itun bat egiterik ez badago, beharrezkoak diren aldaketak egiten zirela Parlamentuaren araudian, beren kargua uzten duten foru parlamentarietara ziurtatze aldera Gizarte Segurantzaren araubideko kasuko estaldura.

Legelari nagusiaren eta kontu-hartzailearen txostenak ikusita –zeinetan argi uzten baita ezi-nezkoa dela 2014ko urtarrilaren 20ko erabakian adierazitakoaren moduko itunik egitea Gizarte Segurantzarekin– eta parlamentu-talde guztiek eta atxiki gabeko foru parlamentari batek egindako proposamena kontuan hartuta –zeinean eskatzen baita beren kargua uzten duten Nafarroako Gobernu kideentzat araubide berariazkoan ezarritakoaren gisako estaldura-sistema bat hartzea Gizarte Segurantzari dagokionez–, honako hau ERABAKI DA Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. artikuluan xedatutakoarekin bat eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren:

1. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauaren aldaketa onestea, zeinaren testua ondok jasotzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua aldatzea

1. artikulua. Letra berri bat gehitzen zaio –d) letra– ordainsariei buruzko arauaren 5. artikuluari. Hona testua:

"d) Prestazioa sorrarazten den bitartean, ez bada bidezkoa interesduna Gizarte Segurantzako sisteman alta hartuta egotea, interesdunak Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi bat sinatzen ahalko du, eta horren ondoriozko kotizazioak itzultzeko eskubidea izanen du".

2. artikulua. Aldatu egiten da ordainsariei buruzko arauko 7. artikuluko 4. idatz-zatiko a) letra. Hona testua:

"a) Berrogeita hemezortzi urte beteta edukitzea 1. idatz-zatian aipatutako hitzarmen berezian baja hartzean eta gutxienez ere hamabost urte kotizatuta edukitzea".